



## Kapitalaren errentagarritasuna: non eta nola lortu krisialdi garaian

**Burtsa aukera arriskutsua somatzen da: urteko galerak %24koak izan dira**

Eguno ekonomiak behar bezala hazten ari ez den zantzu ugari eman ditu. Azken bi hilabeteak utzitako langabezia tasa %8,47koa izan da Estatu mailan. Euskal Herria mailan egoera ez da antzematen hain larria, langabezia tasa %3,5ekoa baita. Hala ere, azken hiruhilekoak 14.000 lanpostu gutxiagoko emaitza izan zuen. Burtsak, nola ez, egoera honen islada nabarmenena izaten ohi da: urteko galerak %24koak izan dira. Egoera honen aurrean, ertain eta inbertsore txikiek kapitalarekin zer egin galdetzen omen dute euren buruari. Egoera honen aurrean, ertain eta inbertsore txikiek kapitalarekin zer gin galdetzen omen dute euren buruari. Eraikuntzaren burbuilaren zapuzketaren ondoren eta Burtsaren galerak ikusita, dirua koltxoaren azpian izatera bueltatzeko momentua al da?

12-13.orrialdea

### Prezio industrialak %10,2ko igoera izan du azken bi hilabeteetan

Kontsumorako Prezio Industrialen Indizeak %10,2ko igoera jaso du azken hilabeteetan. Igoera honen arrazoiak petrolioa eta elikagaien prezioen garestitzean bilatu behar ditugu.

4.orrialdea

### General Motorsek bere produkzioa murriztu behar izan du Espainiar Estatuan

General Motorsen Zaragozako fabrikak bere kotxeen produkzioa murriztu behar izan du, egungo egoera ekonomikoak eragin duen salmenten jeisteak barneratzeko asmoz.

3.orrialdea

### Euskadiko eraikuntzaren kostuak %0,1eko igoera izan du uztailan

Eustatek emandako datuen arabera, Euskadiko Eraikuntza-Kosten Prezioen Indizeak %0,1eko hazkundea izan du 2007. urteko hilabete berberarekin konparatuta.

5.orrialdea



### Elikagaien marka zuriak %20 handiagotu ditu euren salmentak

Krisialdiaren eraginez, elikagaien marka zurien salmenta nabari igo da azken hilabeteetan, supermerkatu-taldeek maneiatzen dituzten datuen arabera, igoera

%20 ingurukoa izanda. Produktuen garestitzeak kontsumitzailea behartu du, hozkailua beterik mantentzeko, eskaintzen bila aritzera.

3.orrialdea

## ALE HONETAN

### • Elkarrizketa Ana Aguirre



Eusko Jaularitzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua  
16. orr.

### • Parke Teknologikoak

Berrikuntza teknologiko eta industrialeko zentroak

8-9. orr.



### • E-Business



Sareko negozio biribilak

11. orr.

### • Ardo onak

Non, noiz eta nola eskatu

14. orr.



## STAFF

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94 421 30 31  
 E-MAILA: ekonomiarekz@leizaola.org  
 POSTA HELBIDEA: 612 Posta Kutxatila, 48000 Bilbao  
 TESTUAK ETA DOKUMENTAZIOA: Iais San Jose  
 MAKETAZIOA: Gonzalo Peña  
 EUSKARAREN ARDURADUNA: Labayru Ikaestegia  
 EGILEA: Leizaola Elkarte  
 HARPIDETZAK: 94 421 30 31 telefonon.



Bizkaiko Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Bizkaia  
 Ekintza honek Bizkaiko Foru  
 Aldundia-ren Kultura Sailaren  
 laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
 DEPARTAMENTO DE CULTURA  
 Viceconsejería de Política Lingüística

KULTURA SAILAK  
 (KULTURA SAILA HIZKUNTZA  
 POLITIKARAKO  
 SAIBURUORDEZTA)  
 DIRUZ LAGUNDUTAKO

ADITUAREN  
IRITZIA

Isabel Mera

Norbolsako analista

Nola lortu kapitalaren  
errentagarritasuna?

Azken urte honetan burtsek erakutsi duten konportamenduak inbertsorentzat epe luzearako proposamen interesgarriak aukera eskaini du, kotizatzen diren enpresa kopuru handien balore erakaragarriak direla eta. Hala eta guztiz ere, zuhurtasunez eta hautakortasunez ibiltzea gomendatzen dugu, munduko potentzia nagusiko egoeraren ziurgabetasun nabarmena eta krisi ekonomikoaren irismena kontuan hartu behar direlako. Beraz, zorzarik gabeko egoera finantzarioa, talde kudeatzaile onak eta arrakastako negozio ereduak enpresetan inbertitzea gomendatu nituzke.

## GORA / BEHERA

## GORA



## EROSKI S. KOOP.

2007. urteko Memoria Ekonomikoa atera berri dute eta datu ezin hobekak aurkeztu dituzte: pasa den urteko ekitaldian Eroski %9an handitu zituen euren mozkinak eta %19an haien salmentak. Constan Dacosta Eroskiko presidentea aurreratu zuen kooperatibako langile guztiak (gaur egun 50.000 baino gehiago) bazkideak bihurtzeko asmoa dutela: hau horrela izanda, Eroski munduko kooperatiba handiena bihurtuko da. Etorkezunean mundu ekonomikoan are gehiago kontuan izateko enpresa izango da Eroski.

## BEHERA



## CARLOS VELA

Martinsaren burtsa suntsiketak biktima ekonomiko izan ditu eta Carlos Vela haien artean aurki ditzakegu. Uztailean bertan behera utzi behar izan zuen Caja Madrid-en zuen Aholkulari postua, Martinsak 1.000 milioi euroko kreditua Velari esker lortu zuelako. Kreditu polemiko honek Velak bere burua postua uztera derrigortu zuen, gaur egun oso argi ikusten ez diren balditzapean. Velak erabat errugabe ikusten du bere burua eta bere azken urteetako lana "etika personalak eta empresarialak" gidatu duela azpimarratu du.

## FOTOALBISTEA

Donostiako Aquariumak zientziaren  
ikerketan laguntzen du

Donostiako Aquariumak itsas ikerketako gaietan eta bi erakundeek egindako aurrerapen zientifikoak hedatzen kolaboratuko du AZTI-Teknialik enpresaren bidez. Horretarako, Donostiako Aquariumen prestatuko den eremu batean, AZTI-Teknialik eta Aquariumek bidaia bat proposatuko dute gaur egungo jakintzaren inguruan eta gure kostetan egingo diren etorkizuneko ikerketen inguruan. Horren helburua da eremu horietako biodibertsitatearen jasangarritasuna bermatzea, bai eta gizakiak ustiatutako balibideena ere.

Aquariumean gaur egun aldi baterako erakusketak egiteko dagoen aretoan egongo dira ikusgai AZTI-Teknialik eta Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioak, biak batera edo bakoitzak bere aldetik, egindako ikerketak. Itsasoarekin eta Euskal Herriko ozeanografiarekin erlazionaturiko beste zenbait gai zientifiko ere jarriko dira ikusgai areto horretan. Aretoa 2009an jarriko da martxan. Bitartean, bi erakundeek gunea diseinatzeko eta edukiz hornitzea dihardute.


Hitzarmenak aurreikusten du espezie pelagikoak iker-

tzeko (hala nola atuna, berdela, txixarroa edo antxoak) behar den guztia duen laborategi bat diseinatzea eta egitea. Proiektua behin betiko onartzen bada, instalazio horiek Donostiako Aquariumak Paseo Berriaren azpian egitea aurreikusten duen luzarazpiko luzapenean kokatuko dira. Ikerketa horien emaitzak batera landuko dituzte, bai eta horiei buruz argitaratuko diren argitalpenak eta batera egindako ikerketetatik sor daitezkeen patentek ere.



## EROSKETAK EGITEN

BESTE EGUNEAN NIRE MUTIL LAGUNAK  
 OUTLET BATERA ERAMAN NINDUEN  
 DENETARIK ZEGOEN  
 ETA OSO MERKE ...



EGIA ESANDA,  
 MAKRORA ERAMAN  
 NINDUEN

SNIFF ...



## ALBISTEAK

### General Motorseko Zaragozako fabrikak bere produkzioa murriztu behar izan du krisiaren eraginez

Kotxeen produkzioari dagokionez, General Motors enpresak Espainiar Estatuan krisialdiaren ondorioak pairatu duen lehenetarikoa dugu. Izan ere, Figueruelas (Zaragoza) dagoen den fabrikak bere kotxeen produkzioa murriztu behar

izan du, egungo egoera ekonomikoak eragin duen salmenten jeitsierari aurre egiteko asmoz.

Hori dela eta, urtearen amaiera baino lehen 6 egunez etengo dute produkzioa, 12.000 kotxe gutxiago fabrikatuz (egunean kotxe-

en produkzioa 2.000 kotxe-koa da). Egun batzuetako lan-etendaldiak, 2007. urteko produkzioarekin konparatuta, General Motorsen espainiar fabrikak 25.000 kotxe gutxiago ekoiztea eragin egingo du.



### SPRIk bulego berria ireki du AEBtan

SPRIk, Euskal Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak, Amerikako Estatu Batuetan bulego bat ireki berri du, hilabete honetan martxan jarri dena. Pensilvanian kokatuta, bulego berriaren asmoa AEBtan enpresak sortu nahi dituzten euskaldunentzako behin-behineko euskarria izatea da.

Basque Business Platform izenarekin ezagutuko den bulego honek bi helburu nagusi izango ditu: batetik, Estatu Batuetako merkatura sartu nahi diren enpresari euskaldunei informazio-laguntza eta babesa eskaintzea; bestetik, Pensilvaniako Estatu eta Euskal Herriaren arteko harreman ekonomikoak sustatzea.

Pensilvaniako Estatu euskal entzupentzat oso



“erakargarria” antzematen du SPRIk, izan ere, bere industria nabarmenena kimika, makineria eta turismoa bada ere, haren apustua bioteknologia eta nanoteknologia baitira.

Urte honetan zehar SPRIk zabalkunde azpimagarria izan

du, guztira 3 bulego-euskarri ireki baititu munduan zehar: Txinan, Polonian, eta hilabete honetan, Estatu Batuetan. Horrez gain, beste lau aholkularitza-bulego ditu bestelako herrialdeetan: Irlandan, Argelian, Thailandian eta Eslovenian, hain zuzen ere.

### Familien hipoteka-zorra %8,2 igo da urteko lehenengo sei hilabetean

Familien hipoteka-zorra 666.200 milioi euroko zifretara ailegatu egin da ekainean, 8,2 puntuko igoera izanik.

Espainiar Estatuako Etxebizitza Ministerioaren arabera, familia zorraren hazkundearen erritmoan izandako moteltze hau etxebizitzaren salmenta kopuru-

aren beherakadaren ondorioz etorri da. Etxebizitza gutxiago saltzeak familiek zor duten diru kopurua murriztu du, 2007. urtearekin konparatuta %31,8 gutxiago saldu baita.

1995. urtera arte jo behar dugu zorraren haldako hazkunde-erritmo antzekoa aurkitzeko.

### Elikagaien marka zurien salmentak %20 inguruko igoera izan du

Krisialdia dela eta, marka zuriak dituzten janari produktuak gero eta gehiago erosten ditu kontsumitzaileak. IFA supermerkatu taldeak onartu duen bezala, produktu hauen salmentak %20 inguruko igoera izan du azken hilabeteetan.

Erosketak egitea gero eta garestiagoa denez, kontsumitzaileak bere burua behartuta ikusi du etxeko hozkailua baterik izaten jarraitu ahal izateko. Hori dela eta, zenbait produktu gutxiago erosten dira (barazkiak, adibidez) eta eskaintzak bilatze joera areagotu egin da.

Horren ondorioz, marka ezagunak ez dituzten janari produktuak lehen baino gehiago saltzen dira, kontsumitzaileak oso kalitate antzekoak izango diren usatearekin. Izan ere, marka

zuri baten atzean fabrikatzaile ezagunak agertzen dira sarri askotan. Adibidez, DIA supermerkatuko gazpatxo Don Simoneko fabriketatik dator. Horrekin batera, elikagai-produktu generiko hauekin lortzen den aurrezkie nabarmena izaten da, %18 eta %42ren artekoa, gutxi gorabehera.

Marka zuriko salmentei dagokionez, supermerkatuen zerrendan Eroski dago buruan, produktu hauen beherapena %40,9koa baita. Carrefour (%40,5 gutxiago balio dute euren marka zuriko produktuek), Alcampo (%40,2 gutxiago), DIA (%39,8ko beherapena) eta Mercadona (%37,4) ere zerrenda horretan aurki ditzakegu. Marka zurien salmentei dagokionez, Espainiar Estatu Europako 4. herrialdea da, merkatuko kuotaren %34 baitu.

### BBK-k %12 gehiago irabazi du urteko lehenengo sei hilabetean

Aurtengo irabaziei dagokionez, %12 gehiago irabazi egin duela adierazi egin du BBK-k urteko lehenengo sei hilabetearen emaitzeko txostenean. Krisialdi ekonomikoak ez ditu oraingoz banku-erakunde honen irabaziaz murriztuz, are gehiago, egoera finantzario ezin hobean dago.

Horrela, %12ko irabazi hau 176 milioi eurokoa izan da. Diru-kopuru horren gehiengoa CAF trenen fabrikatzaileen partaidetzaren %11 saltzearen ondorioz etorri da. Kredituen arloan, BBK-k kredituen emateko joerarekin jarraitu du. Horrela, kredituen kontzesioa %10,5 igo zen. Berankortasunari dagokionez, erakunde bizkaitarrak kontrolpean dauka. Izan ere, kredituak emateko irizpideak gogortu egin dira, diruaren itzulera ziurtatuz.

Banku-erakundearen likidezia areagotu egin da: epe finkorako gordailuen kontratazioa %25 igo egin zen. Datu hauek nabarmetzen dute bezeroek, egungo egoera ekonomikoaren aurrean, segurtasuna aukeratzen dutela.

#### MOZKINEN BALANTZEA


Data (lehenengo sei hilabetean)	%-en irabaziaz	Milioi euro
2006.urtea	%20,5	124,8
2007.urtea	%25,8	157,1
2008.urtea	%12,3	176,5

## ALBISTEAK

### BBK-k 6 milioi euro inbertituko ditu gizarte proiektuetan

Gizarte Proiektuei Laguntzeko Programaren zazpigarren deialdipean, BBK-k egingo duen inbertsioaren berri zabaldu du: ia 400 proiektutarako 6 milioi euro emango ditu banku-erakundeak. Irabazi-asmorik gabeko 214 erakundek sei ekintzarlotan banatutako 356 ekimen garatuko dituzte, hala nola, elbarritasun eta gaixotasun arloa, gizarte-bazterketa, inmigrazioa, pertsona nagusiak, garapenerako laguntza eta I+G.

Diru gehien jasoko duen arloa elbarritasun eta gaixotasunena izango da, dirulaguntzen %43 hartuko baitu. Gizarte-bazterketaren aurkako proiektu berriek laguntzen %26 jasoko dituzte;



garapenerako lankidetzak sustatzeko ekimenek, %10; eta adinekoekin lan egiteko jarduerak, %7. Azkenik, etorkinzentzako laguntzek VII.

deialdi honetan emandako dirulaguntzen %6,7 jasoko dute; eta I+G+b-ko jarduerak, %6.

Proiektuen kokapenari dagokionez, 356-etatik 285

Bizkaikoak dira, eta 5.025.000 euroko dirulaguntza jasoko dute. Bizkaiko lurraldetik kanpo lan egiten duten erakundeentzako dirulagun-

tzen kopurua handitu egin da, eta, 2008. urtean, 975.000 euro jasoko dituzte guztira, Valentziako Erki-degoan, Aragoian, Errioxan, Andaluzian, Gaztela Mantxan, Murtzian, Katalunian eta Madrilan gizarte-proiektuak garatzeko.

Zazpigarren edizio honetan, honako hauexek izan dira Ebaluazio Batzordeko kideak: Hegoa, EHUko Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenera buruzko Ikasketen Institutua; Behatoki, Soziologia eta Merkatu arloko Azterketak; Ados Consulting Ikertaldea, Gizarte Ikerketa eta Prestakuntza; eta Invesco Consulting, Azterketa Soziologikoak, Ikerketa eta Aholkularitza Soziala.

### Nazioarteko Diru Funtsak uste zuena baino hazkunde-tasa txikiagoa aurreikusten du 2008-2009. urteetarako

Krisialdiaren eraginez, Nazioarteko Diru Funtsak bere aurreikuspen ekonomikoak moldatu behar izan ditu. Horrela, ekonomiaren hazkunde-tasak jaitsi ditu, %4,1etik %3,9ra. Organo honetako adituen arabera, aurreikuspen hauen txikitzearen arrazoiak "lehengaien prezioek daukaten gorako joeran eta 2009. urtean merkatuak izango duen ezegonkor-

tasunean" bilatu behar ditugu.

Espainiar Estatuari dagokionez, Nazioarteko Diru Funtsak ez ditu aurreikuspenak aldatu eta 2008. urterako %1,8 eta 2009. urterako %1,6ko hazkunde-tasa mantentzen ditu. Estatu Batuak ere mantendu egiten ditu NDFk, 1,3 puntuko hazkundea izango duenlarik.

### El Corte Ingles Taldeak %5,1 handitu ditu euren mozkinak 2007. urtean

El Corte Ingleseko talde ekonomikoak 2007. urteko ekitaldien emaitzak aurkeztu berri ditu. Datuen arabera, lortutako irabaziak urtebete lehenago baino %5,1 gehiagokoa izan da, 747 milioi euro, hain zuzen ere. Diru gehien lortu dituztenak saltokiak, bidaia-agentziak eta hipermerkatuak izan dira.

Inbertsioarako dedikaturiko diruari dagokionez, 5 zentro berri zabaldu dira 2007. urtean, 1.638 milioi euroko kostuarekin, El Corte Ingleseko zuzendaria Isidro Alvarezek adierazi zuen bezala, "zabalkunde joerarekin jarraitzeko asmoz".

Etorkizunean eraikiko diren 7 zentroak taldeko zabalkundearen adierazlea da.

Haien presentzia internazionalaren adierazlea, bestealde, Portugalen irekiko duten bigarren zentroa dugu (Cascais herrialdean) eta Italiako lehenengoa irekitzeko proiektua dago mahai gainean, Milanen, alegia.



Aurten bizi garen krisialdiari dagokionez, Alvarezek merkatuaren baldintza berriei "sendotasun posizio batetik" aurre egiteko asmoarekin, haien salmenta-aurreikuspenak mantentzen dituzte, kontsumoa moteldu bada ere.

### Prezio industrialak %10,2ko igoera izan du azken bi hilabeteetan

Kontsumorako Prezio Industrialen Indizeak %10,2ko igoera izan du azken hilabeteetan, 2007. urteko uztaileko hilabetearekin konparatuta. Igoera honen arrazoiak, Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, petrolio eta elikagaien prezioen garestitzean bilatu behar ditugu.

Kokea lortzeko prozesuak, erregaiak fintzea eta edari eta janari produktuen industria izan dira gehien igo direnak, %52,1 eta %10, hurrenez hurren. Igoera orokor hau beste zerbitzu industrialek izan duten prezio igoerak bultzatu du. Izan ere, galerak ekiditeko,



industriak ere igoera hauek barneratu behar izan ditu honako faktoreen eraginez, hala nola, gasaren eta energia elektrikoaren produktzioa eta banaketa (%7,2ko igoerarekin), petrolioaren finketa (igoera %2,4koa izanda), metalurgia (%3,5) eta indus-

tria kimikoa (%1,3ko igoerarekin).

Kontsumorako Prezio Industrialen Indizeak ere erakusten du beherakada izan duten alor bakarrak makinariaren eta material elektrikoaren fabrikazioa izan direla, %0,2-ko beherakadarekin.

### Arrasateko Kooperatiba Taldeak (MCC) krisialdiari aurre egiteko neurri zorrotzak proposatuko ditu urteko kongresuan

Engungo egoera ekonomikoari aurre egin eta galerak nolabait murrizteko asmoz, Arrasateko Kooperatiba Taldea neurri zorrotzak hartzeko bidean dago. Horrela, hilabete honetako "Langa-bezi Estrukturala" izeneko Biltzar Kooperatiboan krisialdiaren ondorioak barneratzeko zenbait proposamen azalduko dituzte.

"Enpresei eta herritarrei eragiten dien krisiari aurre egin eta prest egoteko prebentzio-mekanismoak" proposatzea da kongresu horren helburua, MCCren arduradunen hitzetan. Proposa-



tutako neurrien artean bi dira, batez ere, hika-mika handiena sor dezaketena. Batetik, 55 urteko langileentzako aurretiko erretiroa, eta, bestetik, lanpostu-kokaleku berriak derrigorrezkoak egitea.

Egoera larrian dauden enpresetan aurreko erretiroa 55 urte baino gehiagoko langileei aplikatzearen be-

harra aurreikusi dute Kooperatiba Taldeko buruek. Hasierako asmoa ez da orokorrean aplikatzea, baizik eta, Lagun Aroko Prestazio Batzordeko iritzipean, kasu kasu erabakitzea. Bestetik, lanpostu aldaketaren neurria derrigorrezkoa bilakatu daiteke, erabakitzaoren arabera, "interkooperazio eta elkartasuna" irizpidean oinarrituta.

Krisiak Arrasateko Kooperatiba Taldean eragin duen lehenengo biktima ekonomikoetako bat Fagor Electrodomésticos dugu, urteko lehen seihilabeteen %98ko galerak izan baititu.

## ALBISTEAK

### Gasolinaren kontsumoak %10ko beherakada izan du



Petrolio produktuen kontsumoa %10 murriztu egin da ekainean, Espainiako Industria Ministerioaren datuen arabera eta 2007. urteko ekainarekin konparaketa eginez. Beherakada hura diesel eta gasolinaren kontsumoan batez ere nabaritu egin da.

Kontsumo hauen arrazoiak sustraiak, adituen

aburuz, honako bi egoera hauetan aurki ditzakegu. Batetik, gasolinaren kontsumoaren murriztu egin da saltzen diren gero eta kotxe gehiagok dieselekoak direlako (joera hau aldatzeko antza duen arren, duela hilabete batzuk diesela berunarik gabeko gasolina baino garestiagoa egin baita).

Bestetik, krisiaren eraginez enpresa askok euren ekoizpena murriztearen ondorioz, automobilgintzako gasolinaren kontsumoak ere behera jo zuen, batez ere, bidaiariaren eta merkantziaren garraiobideen alorrean dagokienez. Espainian saldu ziren petrolio produktuen 5.710 milioi tona, ia erdia gasolina eta diesel ziren.

### Kotxeen matrikulazioak %41,3-a jeisten dira abuztuan

Automobila eta 4x4 ibilgailuen matrikulazioek %40 baino gehiagoko jeitsiera izan dute abuztuan. Urteko datu txarrenak ematen dituen hilabetea bada ere, espero zuten baino ezezkoagoak izan dira emaitzak, izan ere, pasa den urteko hilabete berean 99.664 kotxe matrikulatu baziren, 2008. urteko abuztu honetan matrikulazioak 58.530 izan baitira.

Anfac, kotxeen ekoizpen elkartearen datuen arabera, urteko salmentek dagoe-neko %24.1-ko galera jaso dute eta alokatzeko kotxeen enpresen erosketak ere %43.7-a murriztu egin dira. Datu txar hauen ondorioz, irailerako salmenten aurreikuspenak birpasatu egingo dira, ustezko



salmentak beherakada nabarmena izanda.

#### Citröen, salduena

Kotxe marken salmentari dagokionez, Citroën izan da salduena 5.216 matrikulazioekin, Ford eta Renault atzetik doazelarik. Kotxe modelo salduena, bestalde, Renault Megane dugu, 2.713 kotxe matrikulatuekin. Adituen aburuz, azken 15 urteetako daturik txarrena da.

### Kreditu txartelen kopurua %10 igo da urteko lehenengo hilabetean



Kalean dauden kreditu txartelen kopuruak %10 gora egin du urtariletik martxorako epealdian. Horrela, 2000. urtetik hona, kreditu txartelen kopurua hirukoiztu egin da. Espainiako Bankuak eman-

dako datuen arabera, egun, ia 44 milioi bezerok erabiltzen dute kreditu txartela.

Espainiako Bankuko kreditu txartelen sarearen iritzi, gorakada hau txartela mota hauek eskaintzen dituzten

zerbitzuen ondorioz etorri da. Izan ere, kreditu txartelak posible egiten baitu erosketen ordainketa atzeratua egitea eta zerbitzu hau da azken garaian kontsumitzaileek gehien erabiltzen dutenak. Kreditu txartela izateko, batez besteko komisioa 30 euro urterokoa izaten da.

#### Kutzazain gehiago

Zor txarteletan dagokienez, haren erabilaren hazkundea moteldu egin da, eta azken lau urteetan %5ko beherakada izan du. Kutzazainen kopuruak, bestalde, %4 gora egin du urteko lehenengo hilabeteetan. Egun, Espainian 61.467 kutxazain daude.

### Euskal Herriko eraikuntzaren kostuak %0,1eko igoera izan du uztailean

Eustatek emandako datuek, krisialdiaren emaitza txarrak eraikuntzak nola barneratu dituen erakusten dute. Horrela, Euskal Herriko Eraikuntza-Kostuen Prezioen Indizeak %0,1eko hazkundera izan du 2007. urteko hilabete berberekin konparatuta.

Igoera honen zergatia eraikuntzan erabiltzen diren lehengaien prezioen gorakadan bilatu behar dugu. Hori dela eta, gehien igo diren lehengaiak gasa eta energia elektrikoak izan dira

(%5,1arekin), altzarien ekoizpena (%0,8) eta material elektrikoak (%0,5) jarrain doazelarik.

#### Eskulana, tasa berean

Beherakada izan duen lehengai, bestalde, petrolioaren fintzea (%-2,7) dugu, urteko inflazio-tasarik handiena ere jaso duena (%17,6). Inolako aldakuntza jaso ez duen alorra eskulana izan da, uztailean ez igoerak ezta jeitsierak ere izan ez dituen.

## BILTZARRA · CONGRESO · BILTZARRA · BILTZARRA · CONGRESO



#### Argibideak eta izenematea:

94 421 30 31 telefonoa.

#### Webgunea:

www.hezkuntzagida.com/biltzarra

### PRAKTIKA EGOKIAK ETA ESKARMENTU ARRAKASTATSUAK GUTXIENGO HIZKUNTZEN ERABILERA GAZTEEN ARTEAN SUSTATZEKO

- 9:00etan: Harrera eta Ohorezko Aurrekua.
- 10:00etan: Hasiera-eremate irakaspenean: Euskararen sustapena EAEan.  
Hizlaria: Patxi Baztanika Galparsoro Jn., Eusko Jaurantzeko Hizkuntza Politikarako Saiburordea.
- 11:15etan: Praktika egokiak hizkuntzen sustapena gazterian bermatzeko. Catalunyararen adibidea.  
Hizlaria: Antoni Mir Jn., Hizkuntzen Ebeko Zuzendaria, Bartzelona.
- 12:30etan: Gutxiengo Hizkuntzen Gutuna eta Europar duen jarraipena eta bidezte maila.

Hizlaria: Alberto Lopez Basaguren Jn., Zuzenbide Konstituzionaleko Katedraduna.

#### ARRAKASTATSUAK

- 15:30etan: Hunkiberatasuna elebitasunean. Ezagupenetik praktikara.  
Hizlaria: Jane Arnold And., Sevillako Unibertsitateko Katedraduna.
- 16:40etan: Gaelkoaren erabilera berreskuratzeko eskarmentu egokiak.  
Hizlaria: Mairion Prys Jones And., Galesko Hizkuntzaren Bulegoko Zuzendaria.
- 17:45etan: Kuadrilategi egitasmoa.  
Hizlaria: Diego Egazabal Jn., "Kuadrilategi" egitasmoaren zuzendaria.

#### ARRAKASTATSUAK

- 09:00etan: Hizkuntza Bizikidetzeta. Finlandiaren adibidea. Hizlaria: Timo Riho Jn., Helsinki Unibertsitateko Katedraduna.
- 10:15etan: Panela. Katalaniera, galziera eta balentziaren erabilera gazteen artean.  
o Gonzalo Romero Jn., Asocioasio Cardona I Vives Elkarteko Lehendakaria, Castelló (Comunitat Valenciana).
- 10:30etan: Mavi Dolz And., Institut Ramon Llull-eko Hizkuntza Saileko Zuzendaria, Bartzelona. (Catalunya)
- Alexandre Barrios Jn., Associacjom Galega da Lingua ekkarteko Hizkuntza Batzarreko ordezkaria, Ourense (Galizia).

- 12:00etan: Panela. Euskararen erabilera gazteen artean sustatzeko ekintzak.  
o Adolfo Arejita Jn., Labayru Institutuko Euskara Saileko Zuzendaria.
- Oskar Zapata Jn., Topaguneko Mintzama Saileko arduraduna.
- Xabier Monasterio Jn., "Zenbat Gara" Euskara Elkarteak kidea.
- Aurkezlea eta Moderatzailea: Inaki Zabaleta Jn., Euskal Herriko Unibertsitateko Komunikazio eta Gizarte Zientzietako Fakultateko irakaslea. Leioa.
- 13:30etan: Galdera eta hausnarketarako tarte.
- 14:00etan: Biltzararen itxialdi Ekitaldia.



## ELKARRIZKETA

## PEDRO LUIS URIARTE

INNOBASQUEko Zuzendaria

## “Ekimen publiko eta pribatuaren arteko uztardura erabatekoa bilatu behar dugu gizartearen mobilizazioa lortzeko”

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide eta Zientzia Ekonomikoetan lizentziatua, euskal industriarekin betidanik erlazionatuta egon den izena Pedro Luis Uriarterena dugu. General Electric entresan hasi zuen bere lan-karrera, BBVAko Aholkularitza ardurak bete zituen eta 80.ko hamarkadan Eusko Jaularitzako Ekonomia eta Ogasun Sailburua izan zen. Euskal Herriko teknologia eta berrikuntza mailaz beti ere arduratsu, Uriarte jaunak INNOBASQUE-n jarri dituen itxaropenei buruz mintzatu digu.

**Garapena eta berrikuntza ezin dira ulertu oso prest dauden pertsona barik. Nola lor daiteke gure herriaren aditu-ihesaldiaren geldiaraztea?**

Arrazoi duzu: pertsonak ezinbestekoak dira prozesu honetan, nahitaez pertsonak burutuko dutelako hain premiazko dugun Bigarren Eraldaketa hau. Gure herrian talentu handia dago eta enpresa, unibertsitate eta oro har gizarteak ahalegin handia egin du azken hamarkada hauetan inoiz bertan bizi izan den belaunaldirik presatuenari aukerak eskaintzeko. Ez dut uste talentu horrek ihes egiteko batere gogorik duenik, ezta orokorrean bertako talentuak ihes egiten duenik ere. Gertatzen da sarritan, jakina, nor bere bidea egin nahi izatea erabat naturala delako. Zeuk ihesaldi modura definitu duzun horrek, nolani ere, zer ikasia eman behar digu. Zer da kanpoko merkatuak profesional horiei eskaintzen diena? Edo bestela esanda, zer da bertan aurkitzen ez duten balio erantsi hori? Galdera horri erantzuteko lanean ari gara, mugikortasunaren kontzeptua asko aldatu delako azken boladagonean, eta are gehiago aldatuko da datozen urteotan.

Paradoxa handia irudituko zaio askori, baina bertatik profesional batzuek kanporako bidea hartu duten bitartean, Euskadi oso interresgarria gertatzen ari da kanpoko adituentzat. Batak ez du bestea kentzen. Ikusi besterik ez dago zein erantzun ona jaso duen lkerbasquek, talentua erakartzeko Fundazioak, bere lehen deialdian. Makina bat ikerlari, punta-puntakoak etorri dira geurera hemen talentuaren sareak hedatzeko.

**Eskulan ez beste, berrikuntzan ere haien papera al dute etorkinek?**

Pertsonak egiten dute gizarte, eta euskal gizarte berritzailea bertako zein kanpotik etorritako pertsonekin osatu egingo da. Geurea ez da mundutik aparte bizi daitekeen gizarte bat; alderantziz, gero eta sendagoak izango dira etorkizun hurbilean munduarekiko gure loturak. Prest egon behar dugu, eta prestatu behar ditugu gure egitura guztiak kultura eta hizkuntza aniztasunean murgildu ahal izateko.

**Euskal Herriko 2. Eraldaketa gaude. Lehenengo erabat arrakastatsua definitu zenuek INNOBASQUE-ren aurkezpen hitzaldian. Zeintzuk izan daitezke prozesuaren bigarren urrats honetako gakoak?**

Hasteko, Lehen Eralda-keta arrakastatsuztat definitzea ez dela inolako meritua esan behar dizut; izan ere, halaxe izan da eta ez dut uste dudarik izan behar dugunik horretaz. Lauro-geiko hamarkadako egoera eta gaur egunekoak erabat desberdinak dira, orduko krisi sakonaren aurrean au-sardi handiarekin hartu ziren erabakiek bere fruituak eman dituzte eta. Gaur egun, langabeziari, enpresa lehiakortasunari eta ongizate-zerbitzuei buruz datuak

ematen direnean, Euskadi beti agertzen da goiko postuetan, baita une honetan bizi dugun egoera zailean, eta hori ez da kasualitate-

resgarri batzuk atera behar ditugu. Adibidez, estrategia komunak eta ongi partekatutako ezinbestekoak direla gogoratu behar dugu. Ekimen



Uriarte pasa den ekaineko Berrikuntza Prozesuan

**Gaur egungo krisi ekonomikoa ikusita, dezelerazioak berrikuntzaren nolabaiteko geldiketa ekar dezake?**

Alderantziz. Gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoaren sustraietara jo beharra dago, koiunturak gorabehera fondoko itsasoak zer dakarren ikusteko. Eta nabarmen agertzen da gure ekonomia lehiakorrago egingo duten faktoreak berandu baino lehen aktibatu behar ditugula. Berrikuntzak ez gaitu krisitik aterako berehalakoan, baina berrikuntzarik gabe oraingo krisi hau erabateko eta epe luzeko moteltzea ekarriko luke. Irautea ez da nahikoa gaur egun. Irauteak orain arteko posizioari eustea esan nahi badu, behintzat. Mundua oso bizkor aldatzen ari da. Duela hamarkada gutxi batzuek ekonomikoki existitzen ez ziren herrialdeak lider bihurtuko dira laster eta orain arte irabazitako gutzia kolokan jar liteke. Zer egin behar dugu? Lehiakorragoak izan, balio erantsi gehiago sortu, geure ekonomian, geure produktuetan, geure jarduteko moduan. Besteek ematen ez duten “hori”, dena delako hori, geure ekonomiak eman dezake, oinarri sendoak ditugulako egiazko gizarte berritzaileantz pau-soak egiteko.

**Saretek INNOBASQUE bihurtu egin zen pasa den urtean. Beharrezkoa al zen proiektu berria prestatzea? Zer du INNOBASQUE-k Saretek ez zuena?**

Joan den urteko uztai-laren 5ean gertatu zen hori, zuk diozun bezala. Saretek Innobasque bihurtu zen, lehen urrats horrekin irispide luzeko proiektu bati ekiteko: Euskadi erreferente bihurtzea Europar berrikuntzari dagokionez. Nire ustez, oso beharrezkoa zen pausu hori egitea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren kontzeptu askoz zabalago

aren emaitza. Beraz, lehen gakoak aurrera begira orain arte egindakoaren garrantzia aintzat hartzea izango da.

Bestetik, aurreko prozesuan bizi izandako esperientziatik beste ikasgai inte-

publiko eta pribatuaren arteko uztardura erabatekoa bilatu behar dugu gizartearen mobilizazioa lortzeko, eta hain zuzen ere, horretarako sortu da Innobasque, elkar hartze hori erantzeko eta bizkortzeko.

## ELKARRIZKETA

bati bidea irekitzeko. Saretekek aparteko ekarpena egin dio Sistemari urte hauetan guztietan, baina erakundeak berak garbi ikusi zuen urratsa egin baino lehenago burutu zen gogoeta estrategikokoan akuilu askoz sendoagoa behar zela berrikuntzaren aldarria gizarte osora hedatzeko. Gure gizarteak gertatuko den eraldaketak herritarren parte hartzea behar-beharrezkoa du, eta hori nekez lor zitekeen orduan arteko egiturekin. Innobasque sortu zen, bada, eta gizarte mobilizatzeko zeregin funtsezkoa hartu genuen.

Bestetik, Innobasqueren sorrerarekin aurrerapauso handia egin dugu lehen aipatu dudan uztaidura publiko eta pribatua bizkortzeko, eta hori ezinbestekoa zela garbi ikusi zen bere momentuan.

**EITBko Estrategia zuzendariarekin ere proiektu berria hasi duzue, berrikuntza eta kreatibitatea bermatzeko programak sustatuz. Funtsezkoak bilakatu al dira komunikabideak gizarteari garapen guztiak helarazteko?**

Dudarik gabe. Gure gizarteak gero eta gehiago komunikazio-kanalen bitartez asetzen ditu bere beharrak. Ez naiz informatuta egoteko beharrez bakar-bakarrik ari. Baloreak transmititzeko, gizarte-kohesioa areagotzeko, prestakuntza oinarritzeko eta zabaltzeko ezinbestekoak dira komunikabideak, horien bitartez herritarren ganako lotura askoz sendoagoa sortzen baita. Eitb taldearekin izenpetu dugun akordioak bide horretan pauso garrantzitsuak egitea erraztuko digu, bi erakundeko, Innobasque eta Eitb, helburu komunak ditugulako.

Hasieratik beretik ikusi dugu komunikabideekin bate-ra jarduteko beharra eta Sustapen eta Komunikazio Sailaren bitartez sare bat osatu nahi dugu harreman hori benetan probetxugarria gerta dakigun guztioi.

**INNOBASQUE bizitza laburreko agentzia dugu. Zein nolako egoera-balantzea egin daiteke orain arteko behin aztertuta?**

2007ko uztailean Innobasque sortu zenean nekez pentsa genezake gaur egun

gauden tokira iritsiko ginenik. Oso bizkorra izan da sendotze-prozesua eta oraindik erabat burututa ez bada ere, emaitzak ikusgarriak izan direla esan daiteke. Gure artean inoizko ilusiorik handiena piztu du proiektu honek, eta lehen ekitaldi honi begira geure buruari jarri genizkion helburuak aise bete ditugula esan daiteke. Bazkide eta eragile koordinatuak lortzeko helburu kuantitatiboak bete egin dira denboraldi honetan: 601 bazkide aktibo ditugu, eta horiek parte hartzen ari dira 32 lan-taldeetan (i-Taldeetan), sei sail operatiboetan (Gizarte Berrikuntza, Teknologia Berrikuntza, Enpresa Eraldaketa, Sistemaren Nazioartekotzea, Ekintzailtza Aurreratua eta Sustapen eta Komunikazioa, eta horiez gain, baita Gipuzkoa Berritzen lurralde-garapena ere). Gobernu Organoen osakerak euskal erakundeekin lider nagusiak erakarri ditu proiektu honetara, eta proiektu zehatzen programa zorrotza zuzentzen dute. Mugari horiek guztiek beharrezko dimentsioa eman diote Innobasque proiektuari, eta orain, hurrengo erronka berrikuntzaren marea hori erakundeetako bakoitzean dinamizatzea da, bakoitzak bere barruan bere berrikuntza-agendak eta planak garatu beharko dituelarik. Eragile guztien mobilizazioa ezinbestekoa da; Innobasque bidea eta katalizatzailea da, baina gai izan behar dugu Gizarte osoak, bazterkeriarik gabe, Euskadi Gizarte Berri-tzaile bihurtzeko ahalegi-nean parte har dezan. Hala-ber, Berrikuntzaren Agentzia Birtualerako bazkideak eta kideak erakartzeko lan handiarekin jarraituko dugu eta

indartsu bultzatuko dugu Berrikuntzaren Euskal Komunitatea.

**Dirudienez, inkestek hala diote, behintzat, euskal gazte askok funtzionarioak izan nahi dute eta ez dute bere burua ekintzaile gisa ikusten. Zer deritzozu honi?**



INNOBASQUE-ko zuzendaria mintzaldiaren momentu batean

Ekintzailtzari buruzko azken datuek zertxobait hobetu dute gure postua arlo horretan, baina oso urruti gaude oraindik lortu beharko genukeen mailatik.

Askoren kaltea ez da leungarri izaten, baina oro har gizarte aberats ia guztietan gertatzen da gauza bera. Gure gizarteak lanbide seguruak eskaini izan ditu

azken hamarkadatan, eta erabateko enplegu-tasetatik oso hurbil gabiltza oraindik. Oro har, lanpostu finkoa izatea egonkortasunarekin eta independentzia ekonomikoarekin lotzen dugu, eta horrek estimuluak erabat gutxitzen dituela bistakoa da. Azken 20 bat urtetan administrazioek eta beste-

tzen ari gara gure ahalegiak. Lortuko ditugun emaitzek, ordea, oinarri sendoa eduki behar dute eta horretarako enpresen barruan barne-ekintzailtza sustatzeko planak landuko ditugu, eta baita hezkuntza-sarean ekintzailtzaren kultura txertatzeko ere.

**Zeintzuk dira INNOBASQUE-ko etorkizunerronkak?**

Geure buruari, gizarte moduan, erronka handiak jarri dizkiogu. Erronka nagusia, abian jarritako prozesua gorpuztean datza. Euskal gizarte osoa mobilizatu beharra dago. Are gehiago, katalizatzaile izaten jarraitu behar dugu.

Innobasquen horretaz erabat jakitun gara, eta Ekintzailtza Aurreratuen esparruan lan egiten ari gara, hots, presentzia globaleko enpresak sortzera zuzen-

## “2030.urterako Euskadi erreferente izango da European”

**Gizarteak berrikuntzaren gaia zerbait abstraktu bezala ikus dezake. Eguneroko bizitzan nola antzeman daitezke berrikuntza eta inbertsio guzti hauen abantailak?**

Berrikuntzarik ezaren ondorioak errazago ikus litezke, behar bada. Arrazoi duzu esaten duzunean berrikuntza zerbait abstraktutat ikusi izan dela orain arte eta hor badugu lan izugarria egiteko, berrikuntzaren ikuspegi anitza zabaltzeko jendartearen. Nolanahi ere, berrikuntzaren abantailak, edo nahiago bada, berrikuntzaile izateak gure gizarteari ekarri-

ko dizkion onurak begien bistakoak izango direla uste dut. Izan ere, garaiekin eritmorik egokitze gaitasuna dakar berrikuntzak, eta gero eta bizkorrago aldatzen ari den munduaren aurrean erantzuteko gauza izatea ezinbestekoa dela nabarmen ikusten dugu guztiok.

**INNOBASQUE zenbakitan: Euro-pa mailan, Euskal Herria berrikuntzaren erreferentea izan dadin, 85 milioi euroko inbertsioaren beharra azpimarratu duzu. Zein izango da enpresa pribatu eta sektore publikoaren parte hartze ekonomikoa?**

Gaur egun sektore publikoak BPGren %30 inguru sortzen du, eta sektore pribatua gainerako %70. Azken honi dagokio lehenak sortutako estrategia eta politikak gauzatzea eta egin ditugun kalkuluen arabera, sektore pribatuak ezarri dugun kopuru horren %67 aplikatu beharko du. Horrela eginez gero, 2030. urterako Euskadi erreferente izango da European. Helmuga horretara iristeko erdibideko geltokiak ere definitu ditugu eta 2010. urtean Europako 10 herrialde lideren artean egon ahal izateko planak lantzen ari gara.

## ERREPORTAIA

# Parke Teknologikoak: Gizarte-garapenaren guneak

**Gaur egungo berrikuntza teknologiko eta garapen industrialeko proiektuak aurrera ateratzen dituzten enprezetako askok Parke Teknologikoetan kokatuta daude. Bertan, ikerketa asmo antzekoak dituzten enpresek kooperazio lanak egiten dituzte beraien artean eta gaur egun giza aurrerapenen zentro aitzindari bihurtu dira. Euskal Herriko Parke Teknologikoko Sarea dugu mintzagai haren errealitatea eta gizartearekiko harremana hurbiltzeko asmoz.**

Euskal Parke Teknologikoen Sarea SPRI Taldearen barruan kokatzen da. Bere jarduerara 1998. urtean hasi zen eta bere helburuen artean Euskadiko Parke Teknologikoen garapena eta haien koordinazioa aurki ditzakegu.

Euskal Herria Parke Teknologikoen ezarpenean aitzindaria izan omen zen eta gaur egun euren artean koordinatuta dauden lau parkez osatutako sare bihurtu da, Europako sare finkatuenetarikoa eta haziera ekonomiko potentziala handienetarikoa erekin.

## Probintzia bakoitzeko Parkea

Bizkaiko Parke Teknologikoa 1985. urtean jaio zen. Zamudion kokatuta, Euskal Herriko erakunde publikoen babespean, industriaren dibertsifikazioa, berrikuntza eta teknologiaren hedapena ditu helburu nagusiztat. Bertan, honako zerbitzu mota desberdin hauek aurki ditzakegu: telekomunikazioak, I+G-ko proiektuetarako bultzada, enpresen arteko kooperazioa, hezkuntza, en-



Arabako Parke Teknologikoko ikuspegi orokorra

presen haztegia eta mintzaldiak, besteak beste.

Arabako Parke Teknologikoa "Pentsaera Estrategikoa" izenarekin aurkezten da gizartera. Berrikuntzaren alde lan egiten duten enpresak animatzen dituzte honako abantail hauek nar-

barmenduz: proiektuetarako kokaleku estrategikoa eta lanerako inguru motibagarria dela, enpresa lankidetzaz azpimagarria dela eta eskuragarri dauden amankomuneko zerbitzuak dituela Parkeak. "Etorkizunaren aldeko apustua, gainontze-

koen gaitetik bereizten duena" lelopean biltzen dira Arabako garapen teknologia sustatzen duten enpresak.

1997. urtean irekita, Gipuzkoako Parke Teknologikoen helburu nagusia "garapen sozio-ekonomikoa sustatzea" da, haien web

orrialdean azpimarratzen duten legez, eta horrela, "ingurune pertsonen bizikaltate hobetzen laguntzea". Bere gako honako hau da, "teknologiaren ikuspegitik aurreratutako proiektuak sortzen parte hartzen duten eragile ekonomikoak hurbiltzea": Unibertsitateak, teknologia-zentroak eta teknologia lantzen duten enpresak. Xede nagusiztat dute "lurralderako enplegua eta aberastasuna sortzeko aukera emango duten enpresa proiektuak sortzea".

## Polo Garaia (Arrasateko Parkea)

Garaia Berrikuntza Gu-neko zuzendari nagusi Andoni Gartziaeren arabera, Polo Garaia "etorkizuneari lortu nahi dugunaren irudi erabakigarria da". Gartziaeren ustez, Mondragoiko Parkearen funtsa "ekimen eta harreman esparruen sorreran datza". Hau horrela izanda, ikerketarako gune bezala definitzen du web guneak Polo Garaia, helburu nagusiztat "unibertsitateko berrikuntzaren inguruko

## Euskal Herriko Parke Teknologikoak zenbakitan (2007. Urteko datuak)



- ENTREPRESA KOPURUA: ..... 369 enpresa
- ENTREPRESEN FAKTURAZIOA: ..... 2.934 milioi €
- ZUZENEKO ENPLEGUAK: ..... 12.733 langile
- 2008. URTERAKO INBERTSIO-AURREKONTUA: ..... 90 milioi €
- I+G PROIEKTUETARAKO AURREKONTUA: ..... 363 milioi €
- EUSKAL HERRIKO BPG-REN GAINEKO ERAGINA: ..... %3,4
- EUSKAL HERRIKO ENPLEGU-TASAREN GAINEKO ERAGINA: ..... %3
- ADMINISTRAZIO PUBLIKOETARAKO DIRU SARRERA (2005.urtekoa): 488 MM €

## Parke Teknologikoen gakoak

- Teknologikoki aurreratutako dauden enpresen kokapena kontsidera daiteke, etorkizuneko jardueretan aritzen direnak.
- Hona hemen Euskal Parke Teknologikoko Sarearen helburuak:
  1. Enpresen arteko kooperazioaren sustapena, baita Unibertsitate eta Teknologia Zentruen artekoa ere.
  2. Oinarri teknologikoko enpresa berrien sorkuntzaren babespena.
  3. Teknologiaren hedapena eta berrikuntzaren kulturaren suspertzea.
  4. Euskal Herriko industriaren berrikuntzari laguntzea.



## ERREPORTAIA

ekintzak, Teknologia Guneak eta enpresak gune fisiko berean kokatzea" duelarik.

### Parke Teknologikoen sarea zenbakitan

2.007. urtean Euskal Herriko Parke Teknologikoen Sareak ia 3.000 milioi euroko fakturazioa izan zuen. Enplegu tasa urte batetik bestera %7 igo zen eta gaur egun ia 13.000 personari ematen die lana. Gauzak horrela, Parke Teknologikoen Sareko enpresen %70 duela gutxi sortutakoak dira. Azpiegitura teknologikoak, urbanizazioak, ekipamenduak eta eraikuntzak, besteak beste, eraman dute inbertsio ekono-mikoen gehiengoa: 37,6 milioi eurokoa 2007. urtean, hain zuzen ere.

Parkeetako langileriari dagokionez, erdia Unibertsitateko tituluduna da eta lautik bata, I+G lanetara dedikatzen da. Aktibitate arloen arabera, enpleguaren %32 Komunikabide eta Informazio Teknologietan espezializatuta dago, Aeronautikak, %14 eta Teknologia-Zentroak %16.

Biozientziak gero eta leku handiagoa du Parke Teknologikoetan, gaur egun enpresen %9k zientzia aurreratu honetan duelarik haien ekonomi iturri nagusia. I+G arloak jorratzen dituzten enpresak ere Parke Teknologikoetan biltzeko joera ikusten ari da azken urteetan. Izan ere, Euskadiko I+G proiektuen %40 Parketan batzen baita.

### Zientzia, Teknologia eta Enpresak

Parke Teknologikoa ho-nako elementu hauen bilkura da: I+G proiektuak aurrera ateratzen dituzten enpresen bilketa, Unibertsitateekiko harreman estua eta inguruekiko errespetuz,



Bizkaiko Parke Teknologikoko Eraikin nagusia

Zientzia, Teknologia eta enpresa era berrikuntzean uztarketa, alegia.

Horretarako, Zientzia arloan Euskal Unibertsitateekin (bai publikoak zein pribatuak) harreman zuzena izateko lan egiten du Parke Teknologikoen Sareak. Unibertsitateetan, alegia, irakaskuntza eta ikerkuntza lana ugariak betetzen dira, ondoren enpresan aplikatu daitezkeenak.

Parke eta Unibertsitateekiko harremana estutzen joan da azken urteetan. Unibertsitateen ikerkuntza taldeen garrantzia proiektu berria aurrera ateratzeko, azken hilabeteetan sinatutako akordioetan isladatzen da, Leioako Unibertsitate Publikoko Parke Zientifikoaren kasuan, hain zuzen ere.

Teknologia alorrean, Parkeetan kokatutako Euskal Herriko Teknologia Zentroak (INNOBASQUEren barnean

sar ditzakegunak) horren isla izan daitezke, ikerkuntza mailan europar erreferentzia bilakatu direnak. Enpreseei dagokienez, berrikuntza industrialaren sustapen handia bultzatu egin du Euskal Herriko Parke Teknologikoak.

### Etorkizunera begira

Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen Zuzendari Julián Sánchez-ek urteko memoriaren aurkezpenean "esperantza eta baikortasun mezua" igorri zuen, krisialdi ekonomikoa dela eta. Parkeetan kokatzen diren ekintza teknologikoak era egokian garatzen direla azpimarratu zuen eta etorkizunerako aurreikuspenak "itxaropentsuak" direla nabarmendu zuen.

"Gure Autonomi Erkidegoan, Parkeek, esta-tu mailan ez beste, haziera

ekonomiko nabarmena izan dute" azalarazi zuen Sánchezek, eta hurrengo urteetako garapena "azpimagarria" izango dela segurtatu zuen. Euskadiko

Parke Teknologikoen Sarearen Zuzen-dariarentzat, Parke Teknologikoak "Euskal Autonomia Erkidegoaren ekonomiarako erreferentzia-ekonomia dugu".

### Parke Teknologikoen enpresei buruzko azken albisteak

#### Noraybio eta Gamesa: Asia merkatuan barne

NorayBio enpresa Asiako merkatuan sartu berri da uztailen lortutako Norayme Bioequiv softwarearen salmentarekin. Hartzai-leak Pakistan-eko Karachi Unibertsitateko Center for Bioequivalence Studies and Bioassay Research departamentua da. Software berri honek sendagai generikoen ikerkuntza-lanetan laguntzeko balioa die Pakistan zentro honen ikertzaileei.

Gamesari dagokionez, haren partehartzea handitu du Asiako zonaldeetan, Txinan ireki berri duen 4. produkzio-

zentroarekin. Sinatutako akordioaren ondorioz, Gamesak 200 milioi euro eskuratuko ditu eta horren truke Longyuan enpresaren haize-sorgailuen hornitzailea izango da.

**Euskal Teknologiararen aurrekontuaren %40a Parke Teknologikoetan inbertitzen da** Derio-Zamudio, Vitoria-Gasteiz, Donostia eta Arrasaten kokatutako teknologia-zentroek Eusko Jaularitzako teknologia-gastuaren aurrekontuaren %40-a barneratzen dute. Egun, 369 enpresak dira I+G proiektuak aurrera ateratzen dituztenak.

## PARKE TEKNOLOGIKOAK, HERRIALDEZ HERRIALDE

### BIZKAIA



- 202 enpresa
- 6.750 enplegu
- 1.950 milioi euroko fakturazioa

### GIPUZKOA



- 58 enpresa
- 2.840 enplegu
- 379 milioi euroko fakturazioa

### ARABA



- 104 enpresa
- 3.076 enplegu
- 605 milioi euroko fakturazioa

### POLO GARAIA (ARRASATE)



- 5 enpresa
- 67 enplegu
- Oraindik fakturazio barik, sortu berri den parkea delako

## I+G+i ALBISTEAK

## Polo Garaiaiko mikro/nanoteknologiaren laborategi berriak



Ikerlan-IK4 Mikro/nanoteknologiako Ikerketa Laborategia eraikitzen hasi da Arrasateko Polo Garaian. Laborategi horrek arlo horretan Ikerlan-IK4k egindako apustua sendotuko du. Instalazio horietan puntako tresneria egongo da, egun lantzen dituzten ikerketa-lerroak bermatzeko eta teknologia guztiak gizarteratzeko. Azpiegitura horrek nahiz egingo diren ekintzek Zientzia eta Ikerketa Ministerioaren, Mondragon Korporazioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza jasoko dute.

Eraikina 5.000 metro karratuko lursail batean eraiki-

ko dute, eta eraikinak berak 1.380 metro karratu hartuko ditu. Eraikin nagusian hiru lan-ildo nagusi egongo dira, Ikerlan-IK4ren mikro/nanoteknologia alorreko hiru ikerketa-lerro nagusitan banatuta: mikrofluidoko, polimero organikoak eta mikro/nanosisteman. Gune horren aldamenean, laguntza-lanetarako eta diseinuetarako laborategia eraikiko dute; baita spinoffen promoziorako gune bat ere.

### Gela Zuria

Azpiegitura horren erdi-erdian, 300 m<sup>2</sup>-ko gela zuri bat egongo da. Gela horretan, azken

beaunaldiko tresneria zientifikoa egongo da, hala nola lau lurruntze-iturri ezberdin dituen atmosfera-kamera bat (Espainian bakarra).

### Ikerketa-Taldea

Gaur egun 16 adituk osa-tzen dute ikerketa-taldea. De-na den, 2008-2011 artean 45 ikertzaile izatea espero dute. Izan ere, proiektu horren arduradunen ustez, ikertzaile-kopuru hori egokia da Ikerlan-IK4 mikro/nanoteknologiaren alorrean lehen mailan mantentzeko eta ikertzaile-talde hori gutxia arlo horretan hezteko. Talde horren asmoa da eguneroko bizimoduaren hainbat aplikazio izan ditzaketan konponbide integralak eskaintzea. Aplikazio erreal horiek bereziki sektore hauetara bideratuko dituzte: etxebizitza, osasuna, energia, ingurumena, farmazia eta nekazaritzako elikagaiak.

## Basoen estresa neurtzen

Landareak estresatu egiten dira, ur-gabezia, beroa, hotza edo gehiegizko argitasuna jasaten dutenean. Beren burua babesteko landareek aktibatzen dituzten substantziak aztertzen ditu EHUko ikertzaile-talde batek, kondizio dese-gokietan basoa berritzeko orduan inguruneari ondoen ego-kituko zaizkion espezieak aukeratzeko xedearekin.

Lehorteeak, muturreko tenperaturek, kutsadurak... kalte egiten diete landareei. Batzuetan, gizakiak eragiten ditu kalte horiek; baso-mozketen ondorioz, esate baterako, itzalpean ohi-tuta dauden landareek jasan dezaketen baino argi gehiago jasotzen dute. Gehienetan, ordea, naturak berak estresatzen ditu landareak. Udaberrian, tarteko tenperatura eta behar adina hezetasun izan ohi dute; hortaz, zientzialariek 'kondizio ezin-hobe'tzat jotzen dituzte urtaro horretako kondizioak. Neguan, berriz, hotz handia jasan behar dute, eta udan, tenperatura altuak eta lehorraldiak; estresa eragiten duten giro-faktore kaltegarriak guztiak ere. Ohiko kondizioetan energia-iturri den argi-kanitate gehiegizko bilakatzen da neguan eta udan, landareen metabolismoak ezin baitu behar bezala xurgatu. Prozesu horri fotooxidazio-estresa deritza.



### Espezie autoktonoak ikertzen

Landare batzuk ez dira gai estres hori jasateko. Gehiegizko energia modu egokian barreiatu ezin dutenez, kate-erreakzio bat sortzen dute, eta pixkanaka hondatuz joaten dira, hil arte. Beste espezie batzuek, berriz, giro-tze-prozesu bati ekiten diote, eta beren burua babesteko konposatu kimikoak aktibatzen dituzte; hots, egoera berriari moldatzen dira. Konposatu kimiko horiek interesatzen zaizkio, hain zuzen, UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko Landareen Biologia eta Ekologia Sailean diharduen ikertzaile-talde bati. EKOFISKO izeneko taldearen kideek, Txema Becerril doktorea buru dutela, landareen babes-mekanismoak ikertzen dituzte, kalteak gertatu baino lehen detektatzeko. Landareek sortzen dituzten substantzia fotobabesleak neurtzen dituzte eta haien portaera aztertzen dute, fotooxidazio-estresaren biosentsore gisa erabiliz.

Landareen artean, zuhaitzak eta gainerako baso-espezieak dituzte aztergai. Izan ere, ziklo luzeko espezieak izanik, inguruna ongi egokituko direla ziurtatu behar da basoberritze-lanei ekin baino lehen. Euskal Autonomia Erkidegoko espezie autoktonoak ikertzen dituzte, hegoaldekoak bereziki, klima atlantikoaren eta mediterranearen arteko mugan daudenez klimaldaketaren aurrean haiek jasango bailituzkete lehenengo kalteak. Garrantzi ekologikoa, garrantzi ekonomikoa edo paisaia-interesa duten espezieez arduratzen dira batik bat, eta hosto erorkorrak eta iraunkorrak dituztenak aztertzen dituzte; azken horiek bereziki, hostoa galdu gabe egokitzen baitira tenperatura hotzetara.

### Antioxidatzaileak metatzen

UPV/EHUko ikertzaileek frogatu dutenez, espezie moldakorren sekretua da antioxidatzaileak metatzea, hala nola E bitamina eta karotenoide bereziak (karotenoak eta xantofilak), landareen kolorea aldarazten duten substantziak hain zuzen. Argi gehiegi jasotzen dutenean, landareek VAZ zikloa jartzen dute martxan: hiru inisial horiei dagozkien hiru xantofilen arteko oreka aldatu egiten da, gehiegizko energia horrek kalte egin ez diezaion landareei. Gizakiok ezin ditugu hain garrantzitsuak diren substantzia horiek gure gorputzean sortu, eta barazkiak jan beharra daukagu antioxidatzaileak lortu ahal izateko. VAZ zikloa iker-tzeaz gainera, orain arte ezagutzen ez zen ziklo bat aurkitu du Txema Becerrilen taldeak (luteina epoxidoaren zikloa). Ziklo hori baso-espezie askotan dago —hala nola pagoan, ereinozean, artean, haritzean—, eta ziklo horren babes-funtzioa ikertzen dihardute orain.

## Tekniker Ik-4 munduko barometrorik aurreratuena egiten ari da

Espainiako Metrologia Zentroaren eta Tekniker-IK4ren arteko lankidetzak ohikoa izan da azken bi hamarkadetan. Doitasunaren ingeniartzan eta ekipamendu zientifikoaren horniduran Tekniker-IK4k duen espezializazioaren hastapeneko puntua izan da.

Halakorik egin baino lehenago, Tekniker-IK4k kala handiko patroizko konparadore interferometriko batez, bi mahaiko konparadore angeluarrez eta beste ekipa txikiago batzuz hornitu zuen EMZ. Baina, zalan-tzarik gabe, presioen lehen mailako patroio berriaren diseinua eta fabrikazioa izan da eronkarik handiena. Eta horri aurre egin zaio, hala ere, Tres Cantos laborategiko ikerzaileen ezagutza zientifikoei eta Tekniker-IK4ren gaitasun teknologikoari esker.

### Laborategi Iparramerikarrak gainditzen

Patroi berri horrek, hain zuzen, gainditu egin du mundu mailan ezarrita zegoen puntako egoera, alegia, gainditu egin du bai oinarritzko laborategi iparramerikarrek (NIST, National Institute for Standardization-ek) bai britainiarrek (NPL, National Physics Laboratory-k) bai mexikarrek (CENAM, Centro Nacional de Metrología-k, martxan jarri den berrienak) ezarria zutena. Talde iparramerikarrenek ez bezala —horrek presioa ultrasoinuen bidez neurtzen du—, EMZaren eta Tekniker-IK4ren proiektua elkarri lotutako merkuriozko bi zutabez osatzen da. Bakoitzaren gainean flotagailu bat jartzen da, eta haietan laser-sortazko islagailuak ipintzen dira. Laserrak merkurioaren meniskoa identifikatzen du interferometriaz, eta uhin-luzera errefraktometroaren bidez neurtzen da. Flotagailuek merkurioari dagozkion oztopo batzuk gainditu behar izan dituzte, hala

gainazal-tentsio handia nola dentsitate handia. Irtenbidea haren konfigurazio geometrikoari eta wolframio karburozko eraztun batzuen erabilerari esker etorri da. Granitozko euskailuak inertzia termikoa eta egonkortasun estrukturala ematen dizkio multzoari.



### Neurketa-prozesua

Neurketa-prozesuaren giltza merkurioaren dentsitateari dagokio, zeina, era berean, tenperaturaren, presioaren eta lur-grabitarearen mendeko baita. Hiru aldagai horien artean, tenperatura da segurtasun ezaren iturri nagusia. Gaur egun eskuragarri den kontrol- eta neurketa-doitasun handiena behar izan du tenperaturak (Kelvin-milarena gutxi gorabehera). Tekniker-IK4ren sistemak ez ditu tenperatura-tarteak neurtzen, elementu bereizleak baizik, merkuriozko zutabearen gertatzen den aldaketa linealari erreparatu. Garapenaren ondorio gisa, azken probak egiten ari dira presioak —diferentziala zein absolutua— neurtzeko ekipa batekin. Neur daitekeen presio-diferentzia handiena 130.000 Pa da (pascal); barometro gisa, desbideraketa estandarra 0,5 Pa da, eta manometro gisa, 2 Pa.

## E-BUSINESS

## Interneteko negozio biribilak

Interneteko sareak negozioak egiteko modua goitik beharra birrindu egin du. Kostuak murrizteko asmoz, sarea sarri askotan produkzio katea eta bezeroaren arteko bitartekari bezala funtzionatzen du. Beste askotan, publizitatea egiteko erabiltzen dute sarea, erakustoki modura, hain zuzen ere, haien merkantzia bezero potentzialei erakusteko asmoz.

Baina beste enpresek Interneten dute haien egoitza baina aldeberean sarea bera da haien negozioa: momenturarte inork eskaintzen ez zituen zerbitzuak aurkezteko asmoz, aintzindari hauek arriskatu egin ziren, kasu batzutan galduz, eta besteetan, irabaziz. Nola sortu ziren behatzeko eta bere diru-iturria zein den aztertzeak, Internet negozio tresna bezala erabili dituzten enpresarien negozioak ditugu mintzagai, hala nola, Google eta Nielsen Consulting.

**Google: XXI. mendeko negozioa**

Larry Pagek eta Sergey Brinek unibertitate garaian 80. hamarkadan sorturiko negozio biribila dugu Google. Helburu nagusia mundu osoko informazioa ordenatzea eta erabiltzaileei eskura egitea litzateke. Horretarako teknologia berrien tresnak erabiltzen dituzte. Dohako zerbitzuak eskaintzen badituzte, non dago Googlen diru-iturria? Negozio gehienetan bezala, publizitatean.

On line-eko publizitate hau bi zerbitzuen bidez bideratzen du Googlek: AdWords eta AdSense. Haien garrantzia erakusteko, hona hemen datua: irabazien %98-a publizitate zerbitzu hauetatik datoz.

AdWords iragarkiak jartzeko zerbitzuak da eta AdSense, alde aurretik kontratatutako iragarki hoiak personalizatzeke tresna dugu. AdWords-en bidez bere enpresa Googleen argitaratua ikusteko asmoz, bezeroak berak aukeraturako hitz gakoak erabiltzen dira. Horrela, erabiltzaile batek hitz gako horiek edota antzekoak Googlen teklatan dituenean, bere bilaketaren emaitzekin batera, enpresa horren web gunea agertuko da, erabiltzaile

horretan klikatzeko aukerarekin. Telebistan ez beste, non tankera guztietako iragarkiak ikusten diren, potentzialak enpresen iragarkiak ikusiko dituzte. Horretaz aparte, Googlek berak enpresaren web

garkiak prestatzeko tresna izateaz aparte, diru-iturria izan daiteke Googlen zerbitzuak kontratatzen dituzten enpresentzako. Izan ere, Googlen enpresen iragarkietan erabiltzaileak klikatzen duen bakoitzean enpresak dirua irabazten du, hau da, Googlek alde aurretik zehaztutako diru kopuru bat sartzen du enpresaren kontu korrantean. Irabazi hoiak kontratatutako iragarki kopuru, neurri eta motaren arabera izaten dira.

Googleren arrakastaren arrazoiak, adituen ustez, honako hauek dira: batetik, berrituko gaitasuna. Izan ere, irabazten dutenaren kopuru handia produktu berrietan eta ikerkuntzan inbertitzen baitute. Adibide modura, 2006. urtean I+G-rako 1,2 milioi dolarreko inbertsioa egin zuten. Gaur egun, Google dohako informazio-bilataile nagusia da eta munduko milaka pertsonak erabiltzen dute euren eguneroko lana betetzeko.

**Googleko 10 aginduak**

1. Erabiltzaileengan pentsatzea garrantzitsua da
2. Hoberena da gauza bakar batean bereiztea
3. Abiadura balore garrantzitsua da
4. Web-aren demokraziak funtzionatu egiten du
5. Ez da beharrezkoa bulegoan egotea erantzuna jasotzeko
6. Posiblea da era etiko batean mozkinak lortzea
7. Eskura dagoen informazio guztia bereganatzea ezinezkoa da
8. Informazio grina muga guztiak gainditzen ditu
9. Jantzirik eraman gabe ere profesional izan daitezke
10. E-maila onekin ez gara konformatzen

Googleek publizitatearen gunea egiteko aukera ere personalizazioa jotzen du: ematen du. AdSense iragarkiak izan ere, bakarrik benetan interesatuak daude bezero bakoitzaren arabera ira-

**Nielsen kodea**

1931. ean enpresaren presidentek, Arthur C. Nielsen, Nielsen izenarekin ezagutuko zen kodea definitu zuen. Merkaturako ikerkuntzak egiteko jarraitu beharreko irizpideak zehaztu zituen, gaur egun, oraindik ere, indarrean mantentzen direnak:

- Inpartzialtasuna
- zehaztasuna
- zorrotasuna
- ekonomia
- zintzotasuna
- prezioa
- zerbitzua
- entrega

**Nielsen: iritzia diruaren truke**

Nielsen mundu mailan egiten dituen inkestak enpresa dugu. Pertsonalki egiten ziren aurrez-aurreko inkestak prozedura aintzineko metodoak zirela ikusita eta urte askotako esperientziak hornituta, Nielsen enpresa merkaturako ikerkuntzak egiten jarraitzeko Interneteko tresnen balioaz ohartu zen.

Hona hemen Internet-ek ematen dituen aukeren aprobetxamendu bikaina. Nielsen, teknologia berrietara moldatu den enpresaren adibidea dugu. Izan ere, Internet-eko Espainiar Estatuko erabiltzaileen ohiturak behatzeko asmoz, posta elektronikoa bidezko inkestak bilaketari ekion diote, funtzionamendua honako hau izanda: inkestatu potentzialak izan daitezkeenei posta elektronikoa bidaltzen zaie jarraitu beharreko pausuekin. Software bat ordenagailuan instalatzen da eta zenbait galderari erantzunda, informatika-programa horretan erabiltzaileak bisitatzen dituen web orrialdeak eta erabiltzen dituen zerbitzuak erregistratuko dira. Niensenek jasotzen du informazio hori eta parametro batzuen arabera ezagutuko ditu erabiltzaileen gustuak. Jendearen partehartzea bultzatzeko, diru kopuru txikia eskaintzen dute, gutxi gorabehera, 5€ hiruhilabeteko. Horrez gain, urtean zehar sari desberdinetako zozketak antolatzen dituzte, erabiltzaileek parte hartzen animatzen jarraitzeko.

**Dirudun egin zuten zenbait E-Business deigarriak**

- **Millon dolar homepage:** Publizitatea jartzeko webgune bateko 1.000.000 pixel dolar bakoitzeko saldu zituen Alex Tewek. Ideia hain arrakastatsua izan zen ezen azken pixelaren truke milioiak lortu baitzituen. Bere asmoa unibertsiteko karre-rako dirua lortzea zen. Gaur egun aberatsa da.



- **Santamail:** Alaskako posta-koderen bat zenbait diruren truke lortzen duzu, Papa Noél helbidea lortzen duzu eta munduko umeetatik postalak jasotzen dituzunean, postal bakoitzeko 10 dolarreko irabazia duzu.
- **Doggles:** txakurrentzako betaurrekoak.



- **Lasermonks:** Eliza Katolikoak Interneten bidez saltzen dituen informatikako tramakuluak.
- **Designer diaper bags:** haur-ohialak eramateko poltsarako pertsonalizatutako diseinuak.
- **Pickydomains:** zure bizitza eta izaera kontuan hartuz, zutan oinarritutako Interneteko domeinuak prestatzen dituzte.

## ERREPORTAIA

# Krisialdi garaian: non eta nola lortu kapitalaren errentagarritasuna

José Luis Rodríguez Zapatero, Estatu Espainiarreko presidentek telebistako elkarrizketa batean onartu aurretik, jendearen gehien-  
goak bazebilen krisia hitzarekin buruan bueltaka. Izan ere, egungo ekonomiak behar bezala hazten ari ez den zantzu ugari eman baitu. Azken bi hilabeteak utzitako langabezi tasa %8,47koa izan da Estatu mailan. Euskal Herria mailan egoera ez da antzematen hain larria, langabezi tasa %3,5ekoa baita. Hala ere, azken hiruhilekoak 14.000 lanpostu gutxiagoko emaitza izan zuen. Burtsak, nola ez, egoera honen isla nabarmena izaten ohi da: urteko galerak %24koak izan dira. Egoera honen aurrean, ertain eta inbertsore txikiak kapitalarekin zer gin galdetzen omen dute euren buruari. Hobe al da dirua ez mugitzea ala arriskatzeko momentua ote da?

## Eraikuntzaren burbuilaren zapuzketa

Azken urteetan etxebizitzak dirua inbertitua izateko balore zurrak eta erentagarria zen. Eraikuntzaren burbuila deiturikoa azken hilabeteetan zapuztu egin da gizarteko sektore askori ekonomikoki min handia eraginduz. Eraikuntza sektorearen zapuzteak beste sektoreen jauziera ekarri du: eraikuntza materialak, langilerien kaleratzeak eta sektore profesionalen kontratazioak bertan behera uztea, besteak beste. Hori dela eta, gaur egun etxebizitzaren eraikuntza, erosketa eta salmentak ez da lehen bezain erentagarria. Higiezinen agentzia ugari atekak itxi behar izan dute azken hilabeteetan, negozio gabeziaren ondorioz. Lehen, bizitza osoko aurrezkiak etxe batean izatea inbertsio bezala ikusten zen, merkatuaren joera etxe hoi balioa handitzea baitzen. Gaur egun egoera goitik behera aldatu egin da. Adreiluaren espektatzearen urrezko aroa amaitu egin den zantzu nabarmena etxebizitzaren prezioa jeitsi egin dela izan daiteke. Adituek erabilitako etxebizitzaren prezioa %20ren jeitsiera izan daitekeela aurreikusitako dute.

## Burtsaren ezegonkortasuna

Gaur egun Burtsan inbertitzearen galderaren aurrean, adituek mota desberdinetako erantzunak dituzte. Batzuk orain baloreak erosteko momentu egokia dela uste dute, burtsak "hondoa jo" baitu, finantza-jakitunen aburuz. Bestelako joera ere badago, egoera are txarragoa izan daitekeelaren korronea, hain zuzen ere. Honen ondorioz, dirua momentuz Burtsan ez sartzeko gomendatzen dute eta banku entitateak eskeintzen dituzten produktuen artean aukeratzeko orduan zuhurtziaz aritzea.

Diego Bareñok, Bizkaiko La Caixako Banku Pribatuaren zuzendaria, merkatuko baldintza ezkorrak aitortzen baditu ere, "zenbait sektoreetan inbertsio aukerak ikusten jarraitzen dugu", hala nola, "materialak, farmazia-entresak edota erregulatutako zerbitzu publikoak".

Orokorrean ados daude ideia batean: orain arte saldu barik mantendu bada inbertsoreren bat, horrela jarraitzea gomendatzen dute, balore

hoiek mantentzea, salmentarekin galerak gorpuzten direlako. Beraz, hobereza izaten da itzarotea eta beste momentu hoberean batean saltzea. Era berean, epe laburrerako Burtsa inbertsio tresna egokia ez dela azpimarratzen dute adituek, pertsona askok arrisku maila dextente batera aurre egiteko prest ez daudelako. Beraz, non izan dirua errentagarritasun gehien lortu ahal izateko?

## Gordailuak: egungo babesgunea

Aurrezki tradizionala kontsidera dezakegun gordailu hauek izango dira, finantza-analisten ustez, bezeroen aukera hobereza urte honetako azken sei hilabeteetan eta baita 2009. urtean zehar ere. Egungo burtsaren egoera ezegonkorra ikusita, diruaren errentagarritasuna lortu ahal izateko entitateek eskeintzen dituzten gordailuen artean bata aukeratzeko somatzen da irtenbide bakarra. Bankuak likideziaz beharra du eta horretarako bezeroen dirua lortu ahal izateko abantail bereziko gordailuak atera ditu merkatura. Euribor-

## Bezeroak erakartzeko bankuen produktu berriak

Krisialdiaren aurrean, bezeroen galera geldiarazteko edota bezero berrien berreskurapena lortzeko bankuek abantail ekonomiko bereziak dituzten diru gordailuak atera dituzte kalera. Kontu korrante tradizionalak oso interes gutxi ematen omen dute. Hala ere, kontsumitzaileek gehien gustukoak dituzten aurrezpen aukera izaten omen da: errentagarritasuna diruaren segurtasunaren menpean, hain zuzen ere. Banku entitate desberdinak gordailu guda batean murgildu egin dira. Hau horrela izanda, banku batzuk bezero berriei %12tik %16ra doan interesa eskeintzen ari dizkie. Hori bai, kontratuaren letra txikia aditasunez irakurri behar da, normalean interes horiek lehenengo hilabetean bakarrik eskeintzen dutelako.

Bezero berriak erakartzeko, diruaz gain bankuek bestelako produktuak eskeintzen dituzte. Caja de Ahorros del Mediterraneok Europako kapitaleetara hegaztina billeteak ematen die bezeroei opari modura 6 hilabeterako epealdiarako gutxienez 2.500 euroko gordailua kontratatzen bada. Caixa Terrasak, bestalde, interes ordainketa modua oparien bidez egiten du: maletak, etxerako garbitzaile elektrikoak, porzellanako ontzileria, besteak beste.

Gure gizarteekiko konpromezua dutenek ere bere gordailu ideiala aurkituko dute egungo banku produktuetan: Caixa Catalunya bere Gordailu Solidarioa atera berri du kalera. Kontu honek ematen duen errentagarritasuna "Un Sol M6n" Elkargora doa, mikrokreditu proiektu batean inbertitzen dena. Caixa Catalunya inbertitutako %100ren berreskurapena bermatu egiten du.

en igoerak, hipoteken kuotaren handitzeak ekarri badu ere, gordailuen ordainketa interesagarriagoa ere eragin du.

Produktuaren epemuga erakundeentzako momento berezia izan daiteke: gaur egun bankuen produktuen artean ematen ari den lehiaketa bezeroen mesederako baita. Izan ere, honek ekartzen baitu gordailuen interesen handiagotzeak. Ondo badakite entitateen buruak, banku batetik besterako bezero mugimendu handia ematen delako azken hilabeteetan, azken orduko eskaintza batezaz liluratu.



Esan bezala, gordailuak gaur egun gomenda daitekeen produktu seguruenak dugu. Izan ere, segurtasunera batez ere hurbiltzeko joera ikusi egin da, bezeroa kontserbadore bihurtu da, Estatu mailan ikus daitekeen gorabehera ekonomikoak ikusita. Era berean, finantza-bankuen eskari ugariak bezeroen gordailuekiko hurbiltzeta butzatu dute.

Hau horrela izanda, finantza-aholkulariek produktuaren ezaugarriak arretaz begiratzea gomendatzen dute. Lehenengo hilabetean UTBko %10 eskeintzen dutenak, ziur aski interesa tasa hura aldarokorra izango da eta bigarren hilabeteak aurrera UTBa %5ekoa izango da.

## Dirua beti eskura izateko kontua

Gordailu mota desberdinak aurki ditzakegu egun baina eskatuena bi tankerakoak izaten ohi dira: epe luze edota ertainerako gordailu finkoa, UTB tasa %4-%5 ingurukoa izango dena; eta bestaldek, gordailu konbinatua. Gordailu honek ekartzen ditu bi inbertsio mota: batetik, diruaren erdia gordailu finko batean sartzen da eta bestetik, diruaren beste erdia Burtsako baloreetan inbertitzen da (banku entitateek seguruena kontsideratzen dituen sektoreak eskeintzen dizkiete bezeroei, ahal diren gehienezko bermekin). Bigarren gordailu mota honetako UTBa altua izaten da normalean, Burtsan inbertitzearen arrisku horrek ekar ditzakeen ondorio ekonomiko negatiboak txikitzeko.

ING Directeko Laranja Korronteko zuzendaria nagusia Sofia Rodríguez-Sahag6n aburuz, mota hauetako kontu korrontek bezeroek bereziki baloratzen dituzten bi ezaugarri dituzte, "errentagarritasuna lortzea eta dirua beti eskura izatea", alegia. Izan ere, errentagarritasun maila altua lortzeko diruaren erabilgarritasuna murriztua ikustea izaten da ohikoena.

## ERREPORTAIA

## Bankuen eskaintzak

	UTB	EPEA	GUTXIENEZKO DIRU-KOPURUA
OPENBANK	%6	Urte bat	1.000 €
ActiveBANK	%6	Urte bat	3.000 €
BARCLAYS	%6	9 Hilabete	3.000 €
ING DIRECT	%6	5 Hilabete	Ez dago
CAJA DUERO	%7	3 Hilabete	Ez dago
BANKINTER	%7	3 Hilabete	25.000 €
CAJA MADRID	%10	Hilabete bat	600 €
BANCAJA	%10	Hilabete bat	1.000 €

## FINANTZA PERTSONALEKO ERREMINTA BERRIENA

Gordailuak eta produktu berriak aurkezteaz aparte, inbertsore askok galduta ikusten dute euren burua merkatuak gaur egun eskeintzen dituen berrikuntzen aurrean. Honi aurre egiteko eta bezero bakoitzak behar duenaren arabera produktua diseinatzeko, hona hemen BBVA entitateak aterri berri duen proiektu berria: BBVA, Zu aintzakotzat hartuz.

BBVAko finantza pertsonaleko kudeatzaile honek aurkezten dituen tresnen



arteon honako hauek aurki ditzakegu: finantzen azterketa pertsonalizatua, aurrekontuen prestaketa, kontuen gehiketa eta finantza gomendioak, besteak beste. Beta bertsio honen proiektuari buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo ezazu <http://www.bbva.com> helbidera.

Diru Gordailuak  
Aukeratzeko Gomendioak

## Kontuz UTB tasa altuekin

Azken hilabeetan UTB tasa altuko gordailuak eskeintzen dute banku entitateek. Hauek arretaz kontratatu behar dira, izan ere, UTBko %7 baino gehiago eskeintzen duten gordailuek tranpa txikia baitute: tasa hori bakarrik lehenengo hilerako eskeiniko dute, hurrengo hilabeterako tasa hura era nabarmean jeitsiz. Beraz, hobe datorkigu urte baterako UTBko %6-ko gordailua kontratatzea, hilabete bakar baterako UTBko %10ekoa baino.

## Erabilgarritasuna eta diru-isunak

Diru-gordailu bat edota bestea aukeratzeko momentuan ez da komeni bankuak ematen duen interes tasari bakarrik begiratzea. Izan ere, askotan garrantzitsuagoa bilakatzen baita diru horren erabilgarritasuna. Epe luze-rako gordailua aukeratzeko badugu, prest egon behar gara diru hori luzerako ez erabiltzeko, hau da, benetan diru horren premia ez dugula. Sarri askotan epe luze-rako gordailuek interes tasa altuaren truke, komisio altuak ere ekartzen baitu aldeberean, eta hauek kontuan izatekoak dira, diru hori epe bukatu aurretik hortik atera nahi badugu, oradindu beharreko isuna itzela izan daitezkeelako.

## Gutxienezko diru-kopurua

Gordailuen gehiengoak hura irekitzeko gutxienezko diru-kopurua eskatzen da. Zifrak entitate batetik bestera oso aldakorak izan daitezke: BBKren On Lineko Euribor Gordailuak, abididez, 30.000€ gutxienezko inbertsioa eskatzen du. Banestok, bestalde, bakarrik 600€.

## Errentagarritasun desberdineko zenbait finantza-produktuak

## LA CAIXA



## Produktua:

Inflazio Plus Gordailua

## Gutxienezko diru-sartzea:

1.000 €

## Bestelako oharrak:

3 urtekoa izanda, interesak urtero ordaindu egiten dira.

Interesa aldakorrekoko gordailua ateratzen berri du La Caixak, "Inflazio Plus" izeneko. Honen ordaina KPI-ren aurteko aldakuntza gehi diferentzial bat izaten omen da. Inflazioaren gainetik ordainketak "inbertsoreen erosteko ahalmena hobetzen du", dio banku entitateak.

## BANCAJA



## Produktua:

Multi Errenta

## Gutxienezko diru-sartzea:

1.000 €

## Bestelako oharrak:

Komisiorik gabeko produktua da.

Gordailu hauen errentagarritasuna konbinazio desberdinak eginez lortu egiten da. Gauzak horrela, bi motatakoak izan daitezke: bata, interes-tasa finkoa batekin eta bestaldetik, merkatuko erreferentzien araberrakoa tasa aldakorrekoko. Komisiorik gabeko produktua dugu Bancajeko honako hau.

## BBK



## Produktua:

On Lineko Euribor Gordailua

## Gutxienezko diru-sartzea:

30.000 €

## Bestelako oharrak:

Interneten bidez bakarrik kontrata daiteke, ez ditu inolako komisiorik eta gehienez 4 urterako gordailua dugu.

Gordailu honek urte baterako Euribor bezalako ordainketa bermatzen du, %0,50 murrizketarekin. Errentagarritate honek urtero berrikusi egiten da eta dirua, zigorrik gabe, prest dago urtea betetzen den bakoitzean.

## CAJA SEGOVIA



## Produktua:

Bermatutako Gordailu Mistoa

## Gutxienezko diru-sartzea:

6.000 €

## Bestelako oharrak:

Aholkulari pertsonala izateko aukera eskeintzen du Caja Segoviak.

"Arriskuak nahi ez dituzte-nen gordailua dugu", horrela aurkeztun du entitatek honako produktu hau. Errentagarritasuna lortzeko, bankuak hasierako dirusartzeak bitan banatzen du: erdia epe finkoko gordailu baterako (UTBko %7,5 puntuko, lehenengo hilean bakarrik), eta beste erdia merkatuko Euro Stoxx 50 indizean inbertitzen du. Indize hau Europako 50 enpreza sendoenek osatzen dute.

## KUTXA



## Produktua:

Zure gusturako Gordailua

## Gutxienezko diru-sartzea:

3.000 €

## Bestelako oharrak:

Interneten bidez kontratatzen bada, baldintza hobeak lor daitezke.

Errentagarritasuna lortzeko diru-sartzea bi gordailu desberdinetan banatzen da. Alde batetik, inbertsioaren parte bat epe finkoko gordailu batean izan daitezkeelako. Bestalde, Malgutasun handia eskeintzen du honak, izan ere, epea 6 hilabete eta 3 urteren artekoa izan daitezkeelako. Bestaldetik, beste parte merkatuko balore batera lotuta dagoen inbertsioa izango litzateke.

## GADGET

## Internetetik aurki ditzakegun tramankulu orijinalak

Gadget izena dute eta tramankulu berean antza oso desberdinak diren bi erabilerak batzean datza: adibidez, dei edo mezu bat heltzen denean dar-dar egiten duen erlojua, edota USB memoria duen laban suitzarra. Aspaldiko partez ugaritu diren gailuak dira, haien hedapena Internet-ari esker izanda. Normalean, haien salmenta eta erosketa web guneen bidez egiten da, eta prezioak produktuen eta jatorriaren arabera izaten dira (askok Japonia edota Estatu Batuetatik datozelako). Tramankulu hauek, Wikipedian irakur dezakegun bezala, normalean txikiak izaten dira, praktikoak eta berriak. Bere diseinua originala izaten da eta fikziozko filmeekin erlazio zuzena du, izan ere, Gadget Inspektoreak mota desberdinetako tramankulu txikia erabiltzen baitzituen. Gadget izenaren jatorria Estatu Batuetan bilatu behar dugu, XIX. mendean, alegia: Gagat, Gauthier & Cia entpresak tamainu txikioko Askatasunaren Estatua saltzen hasi zuen, sinbolo honen urteurrena ospatzeko asmoz.

Hona hemen "Remember Ring" izeneko tramankulu: gogoratu beharreko data programatzen da (ezkontza data, adibidez) eta data hurbiltzen den heinean, eratzunaren tenperatura igotzen da 49º-ra heldu arte (bakarrik 10 segundu bitartean). Emaztearen urtebetzea ahaztea ezinezkoa bilakatuko zaizu. Zoritarrez, ondino ez dago erosteko prest eta bere kostua 760 dolar ingurukoa izango omen da. Informazio guztia web orrialde honetan: <http://www.alaskajewelry.com/>



Star Wars sagaren zaleak ordenagailuarekin ere lan egiterakoan izango dute haien personai kuttunenak hurbil izateko aukera: hemen ikus dezakegun **Hans Solo-ren USB pendrive**. Dibertigarria eta originala, opari bezala paregabea izan daiteke.



Japoniatik, nola ez, datozen **USB memoriak, sushi forma eta koloretakoak**: izoki formakoak eta arroza, besteak beste. Eskuz egindakoak Tokioko janari famatuaren erreplikak, hain zuzen ere. Asiako orijinaltasuna berriro ere gure artean. 49 dolaren truke erosteko prest ditugu modelo desberdinak: [http://www.dynamism.com/usb\\_sushi.shtml](http://www.dynamism.com/usb_sushi.shtml)



Oso praktikoa antzeman dezakegun asmakizuna: **ordena-gailurako USB memoria aldeberean kafea berotzen** duena (gehienez jota 40 gradutara). Lan egiten duzun bitartean, kafearen plazer dastatu ahal izateko. <http://www.chowschina.com/> webgunean prezioari buruzko informazioa eskatu daiteke.

## ARDOAK

## Ardoa: ezinbestekoa jateko orduan

Hona hemen ardoa erosi eta zuzen aukeratzeko jarraitu beharreko zenbait irizpide:

## Ardo bat aukera bakoitzeko

**Zopa:** ardo beltza, tenperatura ideiala 16º izanda.

**Kontsomea:** beltz bat ere edan daiteke, baina aurrekoa baino fresko eta arinagoa.

**Barazkiak:** 7 eta 10º bitarteko ardo beltz arina.

Itsaskiak eta arraina: zuria izaten da ondoan datorrena, apurka-apurka hozkailuan freskatu egin dena. Adibidez: Rías Baixas, Rueda, Alella, Costers del Segre.

**Hegaztiak:** segun eta nola eginda dagoen. Errea badago, ardo gorri batekin konbina daiteke, adibidez, Penedés, Navarra, Somontano, Rioja. Baina saltsekin egiten bada, honeto datorri zuri bat, adibidez, Rueda.

**Haragia:** gorriak eta beltzak aukeratzekotan, ez zara inoiz damutuko. Ehizako haragia bada, hobeto beltza eta 18 gradutan aurkeztu. Adibidez, Rioja, Ribera del Duero, Jumilla, La Mancha, Valdepeñas, Alicante.

**Postrea:** Jerez bezalako ardo goxo eta usaintsuak har daitezke, giroko tenperaturan beti, inoiz ez hozkailuan freskatutakoak.

## Ekonomiaren KZ-ren gomendioak

**HARAGIA:**  
**CAMPILLO (Laguardia)**,  
adibidez,

Campillo Erreserba 1998.  
urtekoa: **21 €**

Campillo Ondua 2002.  
urtekoa: **16 €**



**ARRAINA:**  
**ALBARIÑO (Galizia)**,  
adibidez,

B. Lagar de Cervera  
(Fornelos)

2006. urtekoa: **16 €**



## Ardoa erosteko modu berriak

Interneten bidezko salmentak azken urteetan ugaritu egin dira, bitartekoen kostua aurrezteko asmoz, gero eta enpresa gehiagok saltzen baitituzte euren produktuak Interneten bidez: fabrikazio lekutik bezeroaren etxera zuzenean, eta gauza bera gertatzen da ardoen negozioan ere. Honako web orrialde honetan, <http://www.palaciocores.com/>, "kalitatezko ardo komertzioa, segurua eta argia" eskaintzea dute helburu nagusitzat, Jesús Avila web gunearen buruak berak azpimarratzen duen bezala. Web gune honetan, haien gomendapenak eskeintzen dituzte eta baita bezero bakoitzak momentu konkretu baterako duen beharra asetzeko kontseilu pertsonalizatuak ere ematen ditu. Avilak deitura desberdinetako 400 ardo diferente baino gehiago osatutako upeltegia du eta ardoa Salamancatik Espainiako edozein lekutara bidaltzen ditu botila-ardoak.

## JATETXEA

## Aretxarte Jatetxea



Negozio baten lorpena askotan janari plater edota ardo on baten aurrean egiten da. Gero eta gehiago entpresak bulegotik at sinatzen dituzte kontratuak, giro erlaxatu eta lasai batean akordio batera heltzea sarri askotan errezago egiten delako. Aretxarte Jatetxea horretarako apropos eginda dago.

Bizkaiko Zamudioko Parke Teknologikoan kokatuta, Bilbotik 7 kilometrorra dago eta aireportutik 4 kilometrorra. Hau dela eta, jatetxe honetan biltzen diren exekutiboak tankera desberdinetakoak izaten dira: parke teknologikoan bertan dauden entpresak eta baita Bizkaitik egun batzuetan zehar igarotzen diren zuzendariak ere.

Afaldu edo jan aurretik, bilera bat egin behar bada, Jatetxeak 30-70 bitarteko pertsonentzako bilera aretoa eskeintzen du. Prezioak alokairuaren iraupenaren arabera izaten dira. Egun erdi bat 60-90€

artean dago tarifa; bestalde, egun oso batez alokatzen bada, 120-150€ bitarteko. Horretaz aparte ordaintzen dira edariak, zenbait otamena eta ikusentzunezko materialak (plasmako telebista, bideoa, etabarrak).

Sukaldari burua August dugu. Entrepresentzat lau menu desberdina eskeintzen ditu Jatetxeak, 40-60€ persona bakoitzeko tarifak dituztenak: hasteko betiko janaria (itsaki apur bat, zainzuriak, urdaiaz-pikoa), plater printzipala (haragia ala arraina, kalitate oneneko tarikoena), postrea, ogia, kafeak eta edariak bame (Crianza ardoa edo Viña Salceda). Enpresako bilererako janaria edota afaria Txokoan egitea gomendatzen da, bertako giroa entpresarietarako oso aproposa ikusten dutelako Jatetxearen Harreman Publikoak berak ere. Bertan, euskarri produktu tipikoak dastatzeko aukera paregabea izango dugu.



## ELKARRIZKETA

Ana Aguirre (Bilbo, 1959) merkataritza aspalditik jakituna da, batez ere Europar merkataritzan. Izan ere, Maastrichteko Administrazio Publiko Eskola Europarraren Barruko Merkatuaren ardura-dun lanak bete baitzituen eta 1984. urtetik Eusko Jaularitzarekin harreman estuak izan ditu, ekonomiarekin erlazionatutak dauden karguak betez. Egun, Industria, Merkatal eta Turismo Alorreko Sailburua da. Zuzenbide Ekonomikoan lizentziatua, Aguirrekin izan gara hizketan Euskal Herriko teknologia mailaz galdetzeko eta euskal industriaren etorkizuna aztertzeko asmoz.

**Berrikuntzaren Hiruhortzekoa deiturikoa, INNOBASQUE-k, IKERBASQUE-k eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluak osatzen dute. Euskal I+G-ren panoraman organu askok ikus daitezke. ¿Ez litzateke komenigarria izango organu eta zentro teknologikoen kontzentrazioa egitea baliabideak hobeto aprobetxatzeko?**

Esango nuke gure Berrikuntza sistemaren erakunde konplexutasuna edozein herrialde garaturen antzekoa dela. Erakunde bakoitzak oso ondo definituta dauka bere eginberrara: politikak bideratzea Zientzia, Teknologia eta Berri-

## ANA AGUIRRE

### Eusko Jaularitzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburua



Krisiak eragina du gastatu beharreko diru kopuru-ari buruzko erabakietan, zailantza barik, eta batzuetan, arazo garrantziaren eraginez, epe laburrera begiratzera eramaten gaitu. Edozein kasutan, denok konturatu behar dugu oraingo ahalegina mantendu behar dugula etorkizuna ziurtatu ahal izateko; are gehiago, esango nuke garai hauek, hazkundearen geldotzearekin, BPGarekiko ahalegin handiagora eraman behar-ko gintuzkeela.

**Nolako al da aurrerapen teknologikorekiko Eusko Jaularitzak hartutako konpromezua?**

Europar Batzordeari aurrea hartuz, 2008garrena Berrikuntzaren urtea da Euskadin eta ez da kasualitatea. Bai erakunde berriei dagokienez, edota ardatz estrategikoei eta finantziario konpromisoari dagokienez, azpimarratu nahi nuke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2010 plana, Euskadin zientzia eta teknologia garatzeko Jaularitzak inoiz egin duen aposturik indartsuena dela. Datu bakar bat ematearren: erakunde publikoen 2.300 milioi euroko ekarpenak aurreko planarekiko ekarpena hiru-koiztea esan nahi du.

**Zer nolako eragina du Euskal Herriarengan?**

Asiako bi potentzia erraldoi hauen hazkunde ikusgarria da. Txinak, han egon ala ez, guztiongan du eragina, munduko hazkunde ekonomikoaren %30aren atzetik baitago; petrolioaren eta lehen-gaien merkatuaren bilakaera baldintzatzen ari delako; eta mende honen lehen hamarkadako bere BPG bikoiztu ondoren, BPGarekiko ahalegin bikoizteko asmoa duelako eta 2050erako laukoiztu. Zailantzarik gabe, inoiz gertatu ez den geografia ekonomikoaren aldaketa ikusten ari gara. Jende askoren iritzia kontrario, honen eraginak onak dira Euskadirentzat, merkatu hartarako gure esportazioak indar handiz hazten ari dira eta honezkeroko 100 euskal enpresa baino gehiago daude ezarrita bertan. Izan ere, garatzeko bidean dauden ekonomien hazkundeak batuketa positiboa dakar, agian ingurumenarekiko eraginetan izan ezik. Baina hori beste kontu bat da.

**Zeintzuk izan beharko lirateke euskal industriaren espezializazio eta etorkizunerako arloak?**

Gure apostua beti ere bikoizta izan da: orainaldiaren gainean eraikitzea eta etorkizunaren alde lan egitea, estrategia baten arrakasta egiazko gaitasunean batez ere oinarritzen delako. Horrela jarraitu behar da etorkizunean, hau da, gure espezializazio sektoreak bertzen jarraitu behar dugu, berrikuntzaren bidez bestee-gandik ezberdintzen lortzeko eta aldi berean, beste sektoreak garatzen jarraituz: Euskal Herriak behar duen garapen teknologikoaren trena ez galtzeko.

## “Ikerketa eta garapenaren kontrol publikoa kaltegarria izango litzateke”

kuntzaren Euskal Kontseiluaren kasuan, talentuak erakarri eta garatzea IKERBASQUE-ren kasuan, eta agenteen arteko harremana INNOBASQUE-ri dagokionez. Oso ondo definitutako betebeharrak dira, beraien artean koordinatu beharrekoak baina. Zentro teknologikoei dagokienez, gure zentro teknologikoen sareak kontsolidatu egin behar du, esparru desberdinetan masa kritikoak lortzeko Ikerketarako Europar Esparruan erreferenteak eratze aldera.

**Garapen teknologikoa ekimen pribatua batez ere izatea gizarterako mesedegarria al da?**

Enpresan oinarritutako ekonomia baten eta gizarte ireki baten berezko ezaugarriak dira. Honek ez du esan nahi, ordea, sektore publikoak ez duenik zeregin garrantzitsu bat zientzia eta teknologjaren garapenean, ez da gutxiagorik ere; herrialde aurreratu guztietan ulertzen da horrela, gas-tua bi heren eta heren baten artean banatuz. Partehartze publikoaren arrazoiak argiak dira: alde batetik ikerketak berak duen ziurgabetasun ezaugarriagatik; eta bestetik ikerketak duen gizarte onuragatik. Dena den, partehartze publikoa handia izan arren, pentsaezina da Ikerketa eta Garapenaren kontrol publikoa,

kaltegarria izango litzateke gainera.

**Bizi dugun krisialdiak ikerkuntza teknologikoko inbertsioa murriztu egiten du?**

**Asiako Hegoekialdea, Txina eta India bereziki, haziera ekonomiko indartsua izaten ari da. Ba al darumate erraldoi hauek munduko ekonomiaren zama?**

## EKONOMIA HIZTEGIA

UTB = TAE	GORDAILUA = DEPÓSITO	GIZARTE-ERAGILEA = AGENTE SOCIAL	DE OBRA
ETE = PYME	AZPIEGITURA = INFRAESTRUCTURA	LEHIAKORTASUNA = COMPETENCIA	ERRONKA = DESAFIO
IKERKUNTZA = INVESTIGACIÓN	I+G = I+D	ADITU-IHESALDIA = FUGA DE CEREBROS	IKT = TIC
BPG = PIB	AITZINDARIA = PIONERO	SUSTATU = IMPULSAR	ZABALKUNDE = DIFUSION
GARAPEN IRAUNKORRA = DESARROLLO SOSTENIBLE	EKIMENA = INICIATIVA	ESKULANA = MANO	BALTZU = SOCIEDAD